

# **PUBLIZITATEKO ETA HARREMAN PUBLIKOETAKO GRADUA**

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea  
[www.gizarte-komunikazio-zientziak.ehu.es](http://www.gizarte-komunikazio-zientziak.ehu.es)

## **AURKIBIDEA**

### **1. Graduaren deskribapena**

- Ikasketen deskribapena
- Sarrerako profila
- Ikasketen antolamendua
- Titulazioaren programa
- Mugikortasun programak
- Praktiak
- Gaitasunak
- Graduatuaren profila
- Laneratzea

### **2. Graduaren planifikazioa**

### **3. Maiz egiten diren galderak**

- Zein irizpideri jarraitu behar dio ikasleak unibertsitatean sartzeko izena ematerakoan?
- Nola egin daiteke gradu aldaketa lehen maila gainditu eta gero?
- Nola banatzen dira lehen mailako txandak eta taldeak?
- Egin al daiteke bi gradu aldi berean?

## 1. GRADUAREN DESKRIBAPENA

### IKASKETEN DESKRIBAPENA

Publizitateko eta Harreman Publikoetako Graduaren helburua da ikasleak prestatzea gai izan daitezen komunikazio kanpaina integralak diseinatu eta sortzeko, eraginkorrek eta XXI. mendeko hedabideetara egokituak (Internet, bideojokoak, telebista, irratia, zinema, multimedia teknologia berriak eta telefonía mugikorra). Ikasketa planak modu orekatuan konbinatzen ditu prestakuntza teoriko eta praktikoa. Ikasleek komunikazio integraleko kanpainak diseinatzeko ikasten dute, eta, oro har, era guztietako proiektu profesionalak diseinatzeko publizitateko formatu desberdinetan. Fakultateak instalazio modernoak dauzka, eta bertan ikasleek hainbat proiektu praktikoa egiten dituzte, prestakuntza sendoa bermatzen dietenak. Gainera, enpresetako borondatezko praktikek eta atzerrian ikasteko truke programek haien prestakuntza osatzen dute.

### SARRERAKO PROFILA

Titulazioan sartzeko baldintzak betetzeaz gain, Publizitateko eta Harreman Publikoetako ikasleak interesa izan behar du proposamen irudimentsuetan, eta publizitatearen eta komunikazioaren sektoreko formatu eta euskarri berrietan (telebista, irratia, Internet, bideojokoak, zinema eta multimedia teknologia berriak). Jakina, trebea izan behar da Internet eta teknologia berriak erabiltzen, eta harremanetan sartzeko eta komunikatzeko gaitasuna izan. Baloratzen da kultura maila ona izatea, hizkuntzak jakitea eta irudimentsua eta berritzailea izatea.

### IKASKETEN ANTOLAMENDUA:

|            |         | Kredituak               |                                   |              |            |                      |         |
|------------|---------|-------------------------|-----------------------------------|--------------|------------|----------------------|---------|
|            |         | Oinarrizko prestakuntza | Beste batzuetako oinarrizko gaiak | Espezifikoak | Hautazkoak | Gradu Amaierako Lana | GUZTIRA |
| Ikastaroak | 1.a     | 54                      | 6                                 |              |            |                      | 60      |
|            | 2.a     |                         |                                   | 60           |            |                      | 60      |
|            | 3.a     |                         |                                   | 30           | 30         |                      | 60      |
|            | 4.a     |                         |                                   | 30           | 18         | 12                   | 60      |
|            | GUZTIRA | 54                      | 6                                 | 120          | 48         | 12                   | 240     |

### TITULAZIOAREN PROGRAMA

Publizitateko eta Harreman Publikoetako Graduak lau urte irauten du eta lau modulu-maila dauzka. Lehen mailan lantzen dira komunikazioaren profesional guztiek izan beharreko oinarrizko gaitasun praktikoa eta teorikoa, eta, beraz, irakasgai guztiak nahitaezkoak dira, eta berberak titulazio honetan eta Kazetaritzako eta Ikus-entzunezko Komunikazioko graduetan. Bigarren mailan hamar gaietako sei berberak dira titulazio honetan eta Ikus-entzunezko Komunikazioan, eta lau Kazetaritzan. Hirugarren eta laugarren mailak Publizitateko eta Harreman Publikoetako arlo desberdinetako espezializaziora bideratuta daude, eta praktikokoak dira: hautazko irakasgaiak daude, eta haien artetik ikasleak aukeratu behar ditu bere interesei eta lortu nahi duen profil

profesionalari ondoen doazkion bost irakasgaiak. Hautazkoak hartzean, ikasleak bi aukera ditu: bost irakasgai hartzea hautazko guztien artetik edo "aipamen" bat egitea, hau da, titulazioaren arlo jakin bati lotutako hautazko bost irakasgaien multzoa. Publizitateko eta Harreman Publikoetako Graduan bi aipamen eskaintzen dira:

- **Komunikazioaren Arloko Zuzendaritza aipamena** Kazetaritzako Graduan ere eskaintzen da, eta erakunde publikoen edo enpresa pribatuen komunikazioaren kudeaketan espezializatu nahi duten ikasleei zuzenduta dago. Bost gai hauek ditu: Komunikazio Bulegoak, Komunikazio Publikoa, Harreman Publikoen Teknikak, Bozera maileen Prestakuntza eta Komunikazioaren Kudeaketa Nazioarteko Erakundeetan.

-**Publizitatearen Arloko Multimedia Errealizazioa aipamena** zuzenduta dago Publizitateko eta Harreman Publikoetako komunikazio estrategiei espezializatu gura duten ikasleei. Bost gai hauek ditu: Sormena II, Diseinu Grafiko Aplikatua, Ikus-entzunezko Narratiba, Publizitatearen Arloko Multimedia Errealizazioa eta Arte Zuzendaritza.

Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua euskara hutsean eta gaztelania hutsean egin daitezke, eta irakasgai batzuk ingelesez eskaintzen dira. Era berean, borondatezko praktikak egin daitezke enpresetan eta ikasleek beste unibertsitate batean ikasteko aukera ere badute.

Kazetaritzako Gradua lortzeko ikasleak Gradu Amaierako Lana egin behar du, ingurune profesionalen egoki moldatu daitekeela frogatzeko.

## **MUGIKORTASUN PROGRAMAK**

Ikasturte bat atzerrian egiteak, edukietan sakontzeko eta hizkuntza hobetzeko aukera emateaz gain, balio erantsia ematen dio haren curriculum profesionalari. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearen helburuetako bat da gure ikasleen eta beste ikastegi batzuetako ikasleen arteko trukeak sustatzea, honako programa hauen bidez: SICUE (estatuaren barruan), Erasmus+ (Europa), UPV/EHU-AL (Latinoamerika) eta beste norako batzuk (Amerikako Estatu Batuak, Errusia, Kanada eta Asia). Gaur egun hitzarmenak dauzkagu mundu osoko hirurogei fakultaterekin baino gehiagorekin, eta trukerako ehun plaza baino gehiago eskaintzen dizkiegu gure ikasleei. Fakultatea lanean dago hitzarmen gehiago egiteko eta plaza gehiago kudeatzeko, Europako Unibertsitate Eremura egokitzeko planaren barruan.

## **PRAKTIKAK**

Gure fakultatean ikastearen beste abantailetakoa bat da gradua amaitzen den bitartean ikasleek aukera dutela ingurune profesionalarekin harremanetan jartzeko. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak aukera ematen die ikasleei borondatezko praktikak egiteko enpresa eta erakunde publiko eta pribatuetan. Programa honetan 500 destino baino gehiago eskaintzen dira. Praktikak ikasketekin batera egin daitezke, 450 ordu dira gehienez eta 6 ECTS krediturekin baliozkotu daitezke (hau da, hautazko irakasgai batekin).

## **GAITASUNAK**

- Teoria, kontzeptu eta metodologiaren esangura eta garrantzia ulertzea ikus-entzunezko komunikazioaren diziplinarteko testuinguruan.
- Teoria eta tresna metodologikoak praktikan aplikatzea hainbat komunikazio prozesu eta testuinguruan.
- Komunikazio arazoak konpontzeko bide irudimentsuak sortu, garatu eta aplikatzea.
- Gertaerak, prozesu sozialak, testuak eta komunikazio proiektuak aztertu, interpretatu, azaldu eta kritikoki baloratzea.
- Proiektuak, lanaren eta ikerketaren lorpenak eta emaitzak komunikatu eta azaltzea, jario onean eta modu eraginkor eta argumentatua, publizitateko eta harreman publikoetako hainbat genero, formatu eta hedabidetan.
- Lan taldeetan parte hartzearekin, kudeaketarekin eta optimizazioarekin zerikusia duten abileziak eta trebeziak garatzea, eta, horretarako, erabakiak hartzeko eta emaitzak ebaluatzeko irizpide ondo oinarrituak aplikatzea.
- Trebeziak aplikatzea eta teknika, teknologia eta baliabideak erabiltzea publizitateko eta harreman publikoetako edukiak eta komunikazio prozesuak garatzeko.
- Helburuak zehazteko eta ekintzak planifikatzeko estrategiak diseinatzea, publizitateko eta harreman publikoetako proiektuak egitean.
- Ingurune eta errutina profesionalei buruzko jakintza eta esperientzia eskuratzea, publizitatearen eta harreman publikoen arloan merkatuak eskatzen dituen profil profesionalen lanaren errealitatera hurbiltzeko.
- Informazioa eta dokumentazioa bilatu, aukeratu, hierarkizatu eta aztertea hainbat motatako iturriak erabiliz, eta haien edukia egokitzea hainbat narratibo molde eta estrategiatara.

## **GRADUATUAREN PROFILA (IRTEERAKO PROFILA)**

Publizitateko eta Harreman Publikoetako graduatua, titulazioari dagozkion gaitasunez gain, prestakuntza profesional espezializatu eta teknikoa hartzen du komunikazio kanpaina integralak eta publizitate eta marketin kanpainak diseinatu eta egiteko, edo zelako hedabideetan eta edo zelako euskarri teknologiko eta ikus-entzunezkoetan.

## **LAN AUKERAK**

Publizitateko eta Harreman Publikoetako graduatuak hainbat profil profesional izan ditzake. Lau arlo nagusi hauetan koka daitezke:

- Harreman publikoetako kabineteen arduradunak edo komunikazio zuzendariak: espezialista honek erakunde publiko eta pribatu etako komunikazio plan eta kanpainak osorik kudeatu eta gauzatzen ditu.

- Publizitate sortzailea: profesional honek kontsumitzailea harritu dezaketen publizitate proposamen berriak egiten ditu, ikus-entzunezko edozein formatutan.
- Diseinatzaile grafikoa eta web diseinatzailea: profesional hau espezialista da komunikazio grafikoan, edozein produktutarako eta publizitate eta komunikazioaren edozelako formatuetan.
- Hedabideen kudeaketa eta plangintza: profesional honek publizitatea hedabideetan txertatzeko plana diseinatu eta gauzatzen du, eragin handiko kanpainak bermatzeko.
- Marketina eta ikerketa: merkatuak ikertzen ditu eta marketin plan eraginkorrak diseinu eta gauzatzen ditu.

## 2. PUBLIZITATE ETA HARREMAN PUBLIKOETAKO GRADUA

### 1. MAILA

Irakasgai komunak honako graduarekin:  
Kazetaritzako Gradua  
Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua

- Berrien Idazkera Prentsan (1.LH)
- Euskararen Erabilerak Komunikabideetan (euskarako taldea) (1.LH)
- Gaztelaniaren Erabilerak Komunikabideetan (gaztelaniako taldea) (1.LH)
- Ikus-entzunezko Hizkuntza (1.LH)
- Ingurune Ekonomikoaren Analisia (1.LH)
- Komunikazio Komertziala, Korporatiboa eta Instituzionala (1.LH)
- Gaur Egungo Munduaren Historia (2.LH)
- Ikus-entzunezko Sormen Teknikak (2.LH)
- Informazio Generoak (2.LH)
- Komunikazioa eta Publizitatea: Konbentzitzeko Estrategiak (2.LH)
- Komunikazioari Aplikaturako Estatistika (2.LH)

### 2. MAILA

Irakasgai komunak honako graduarekin:  
Kazetaritzako Gradua  
Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua

- Nazioarteko Harremanak (1.LH)
- Ziberkazetaritzako Idazkera (1.LH)
- Dokumentazio Iturrien Kudeaketa (2.LH)
- Informazioaren Zuzenbidea (2.LH)

Irakasgai komunak  
Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduarekin

- Komunikazioko Ikerketa Metodoak (2.LH)
- Pentsamendu Politikoaren Historia (2.LH)

Publizitateko eta Harreman Publikoetako Graduko  
irakasgai espezifikoak

- Sormena (1.LH)
- Marketina: Kontzeptuak, Estrategiak eta Teknikak (1.LH)
- Publizitate eta Harreman Publikoetako Sistemak eta Prozesuak (1.LH)
- Publizitatearen Historia (2.LH)

### 3. MAILA

#### NAHITAEZKOAK

- Diseinu Grafikoa (1.LH)
- Hedabideen Plangintza I (1.LH)
- Harreman Publikoen Teoria (1.LH)
- Merkatuen Ikerketa (2.LH)
- Hedabideen Plangintza II (2.LH)

Mugikortasun programak:  
ERASMUS, EHU-AL, BN  
eta SICUE

Borondatezko praktikak:  
hautazko 6 krediturekin  
baliozkotzeko aukera

Beste jarduera batzuetatik  
kreditu onarpenera:  
gehinez hautazko 6  
kreditu

#### HAUTAZKOAK (AUKERATZEKO 5)

- Komunikazioa, Generoa eta Masa Kultura Mundu Garaikidean (2.LH)
- Euskararen Arauak eta Erabilerak (euskarako taldea) (2.LH)

#### KOMUNIKAZIOAREN ARLOKO ZUZENDARITZA AIPAMENA

- Komunikazioaren Kudeaketa
- Nazioarteko Erakundeetan (1.LH)
- Bozaramaileen Prestakuntza (2.LH)
- Harreman Publikoen Teknikak (2.LH)

#### PUBLIZITATEAREN ARLOKO MULTIMEDIA ERREALIZAZIOA AIPAMENA

- Sormena II (1.LH)
- Diseinu Grafiko Aplikatua (2.LH)
- Ikus-Entzunezko Narratiba (2.LH)

### 4. MAILA

#### NAHITAEZKOAK

- Publizitatearen Eraginkortasuna (1.LH)
- Marketin Estrategikoa eta Interaktiboa (1.LH)
- Kontsumoaren Psikosoziologia eta Marketina (1.LH)
- Komunikazio Estrategikoa eta Operazionala (2.LH)
- Publizitatearen Zuzenbidea (2.LH)

- Komunikazio Publikoaren Zuzendaritza (1.LH)
- Komunikazio Bulegoak (2.LH)

- Arte Zuzendaritza (1.LH)
- Publizitateko Multimedia Errealizazioa (1.LH)

- Globalizazioa eta Munduko Sistema Ekonomikoa (1.LH)
- Ikus-entzunezko Sistema (1.LH)
- Komunikazioa Euskaraz: Hedabideetarako Hizkuntza Estrategiak (euskarako taldea) (1.LH)
- Kultura Marketina (2.LH)
- Publizitatearen Etika (2.LH)

#### HAUTAZKOAK (AUKERATZEKO 3)

**Gradu-Amaierako Lana**

(1.LH) = LEHENENGO LAUHILEKOA

(2.LH) = BIGARREN LAUHILEKOA

### **3. Maiz egiten diren galderak**

- Zein irizpideri jarraitu behar dio ikasleak unibertsitatean sartzeko izena ematerakoan?

**Ikasleari aholkatzen diogu lehen aukera moduan jar dezala gehien interesatzen zaion gradua, eta jar ditzala bigarren eta hirugarren aukera moduan lehen maila berbera daukaten graduak. Modu horretara, ikasleak ez badu lortzen matrikulatzea lehenengo aukeran hartutako graduan, antzeko gradu batean egin dezake eta graduz aldatzea eskatu lehen maila bukatu eta gero. Esate baterako, ikasle batek Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi nahi badu eta ez badu lortzen plazarik, eta bigarren aukera moduan Publizitatea eta Harreman Publikoak edo Kazetaritza jarri badu, gradu horretako matrikula egin dezake eta espedienteak lekuz aldatzea eskatu lehen maila bukatu eta gero. Gauza bera egin daiteke Gizarte Zientzien arloko graduen kasuan, hau da, Soziologia eta Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa.**

- Nola egin daiteke gradu aldaketa lehen maila gainditu eta gero?

**Espedienteak lekuz aldatzea eskatzeko (graduz aldatzea) bi baldintza bete behar dira: batetik, ikasleak lehen maila osoa izan behar du gaindituta eta, bestetik, eskariaren kopurua ezin da izan ikasketak egiten hasteko plaza kopuruaren % 10 baino handiagoa. Eskariaren kopurua handiagoa izango balitz, ikaslearen batez besteko notaren arabera esleituko lirateke plazak (graduak abian daramatzan lau urteetan ez da bete plaza kopurua, hau da, eskatu diren leku aldaketa guztiak onartu dira).**

- Nola banatzen dira lehen mailako txandak eta taldeak?

**Ikus-entzunezko Komunikazioko lehen mailako eskolak, Kazetaritzakoak, eta Publizitate eta Harreman Publikoetakoak bi txandatan ematen dira, goizez eta arratsaldean. Ikasleak, matrikula egitean, lehenengo eta behin aukeratzen du ikasketak zein hizkuntzatan egin nahi dituen (euskara edo gaztelania) eta ondoren txanda (goizez edo arratsaldean). Goizeko txandan gaztelaniako hiru talde daude eta euskarako bat; arratsaldekoan, berriz, euskarako bat eta gaztelaniako beste bat. Soziologiako eta Politika Zientzia eta Gestio Publikoko eskolak goizez baino ez dira ematen eta bi talde daude, bat euskaraz eta beste bat gaztelaniaz. Ikasleak hizkuntza aukeratu eta gero txanda eta taldea esleitzen zaizkio. Ikasleak irakasgairen bat ingelesez egin nahi badu, beste talde batera joan beharko da eskoletara, 61 taldera hain zuzen ere. Talde horren ordutegia eta ikaslearen taldearen ordutegia bateragarriak izango dira. Txanda aukeratzen da matrikula egiteko deiaaren arabera (nota); hori dela eta, txanda aukeratzen duten azkenek itxita aurki ditzakete taldeak edo txandak.**

- Egin al daiteke bi gradu aldi berean?

**Bai, ikasketak aldi berean egiteko eskaria aurkeztu behar du ikasleak lehen maila amaitu eta gero. Gure ikastegiko ikasketa planen diseinua dela eta, bi urte gehiago eginda bigarren gradua amaitu daiteke, bai Komunikazioaren arloan bai Gizarte Zientzien arloan**

**GRADUEN ARTEAN BALIOZKOTU DAITEZKEEN IRAKASGAIEN KOPURUA GEHIENERA**

**Oharra:** ikasketak gaztelaniaz egiten dituztenek bi irakasgai kendu behar dituzte taulan agertzen diren gaietatik, irakasgai bi horiek UPV/EHUko Euskararen Plan Gidarikoak baitira

| <b>GRADUAK</b>                           | <b>Kazetaritza</b> | <b>Publizitatea eta Harreman Publikoak</b> | <b>Ikus-entzunezko Komunikazioa</b> | <b>Soziologia</b> | <b>Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa</b> |
|------------------------------------------|--------------------|--------------------------------------------|-------------------------------------|-------------------|-------------------------------------------------|
| Kazetaritza                              | Xxxxxxxxxx         | 16 + 5*<br>16+1*                           | 18                                  | 8                 | 9                                               |
| Publizitatea eta Harreman Publikoak      | 16 + 5*<br>16+1*   | Xxxxxxxxxx                                 | 18                                  | 7                 | 8                                               |
| Ikus-entzunezko Komunikazioa             | 18                 | 18                                         | Xxxxxxxxxx                          | 8                 | 9                                               |
| Soziologia                               | 8                  | 7                                          | 9                                   | xxxxxxx           | 19                                              |
| Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa | 9                  | 8                                          | 2                                   | 19                | xxxxxxxxxxxxxx                                  |

\* Ikasleak aukeratzen baditu Komunikazioaren Arloko Zuzendaritzako aipameneko 3. eta 4. mailako hautazko bost irakasgaiak, Kazetaritzak eta Publizitatea eta Harreman Publikoek partekatzen duten aipamenekoak, guztira 21 irakasgai izango dira berberak bi graduetan. "Pentsamendu Politikoaren Historia" irakasgaia hautazkoa da Kazetaritzan eta nahitaezkoa bai Publizitatea eta Harreman Publikoetan bai Ikus-entzunezko Komunikazioan.